



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2021eko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021/05/21

HISTORIA

**EPAIMAHAI ZK.:
KALIFIKAZIOA**



DEITURAK

IZENA

NANa

GAIA: ESPAINIAKO GERRA ZIBILA

TESTUA: MOLA JENERALAREN BANDOA

"Beste behin **Armadak, nazioaren gainerako indarrekin bat eginik**, ezinbestean heldu behar izan dio espainiar gehienek irrikari. ORDENaren inperioa ezarri behar da, ez bakarrik kanpoko itxurari begira, baita haren muin-muinean ere. Horretarako, JUSTIZIAz jokatu behar da -justiziak ez dio erreparatzen gizarte-klase edo -kategoriei, justiziak ez ditu goraipatzen edo jazartzen-. Ezin du Espainiak bi bandotan zatituta egon, botereaz gozatzen direnak eta beren eskubideak zapalduta dituztenak. Bakoitzaren jokabideak gidatuko du AUTORITATEaren jokabidea; gure Nazioan desagertuta dagoen beste elementu bat, giza kolektibitate orotan ezinbestekoa dena. AUTORITATEaren printzipioa berrezartzeak berekin dakar, ezinbestean, zigorrak zentzagarriak izatea; seriotasunez ezarriko baitira eta azkar gauzatuko ere, zalantza eta duda-izpirik gabe. Langileei dagokienez, lanerako askatasuna bermatuta dago eta ez da koakziorik onartuko ez bataren ez bestearen aldetik. Nagusien eta langileen nahiak aztertu eta ebatziko dira, eta ahalik eta justiziarik zorrotzena ezarriko da, elkarlanean, langileen zentzutasuna eta nagusien karitatea igurikiz, arrazoiarekin, justiziarekin eta patriotismoarekin uztartuz. Hartara, jakinen dute borroka sozialak elkar ulertzeko toki batera eramaten, guztiondako eta herrialde osoarendako onurak ekarri. **Bere borondatez elkarlanean aritzeari uko egiten diona (...)** ondorioak pairatzen lehena izanen da eta **hark nozituko ditu gehien**. (...) Iragarritako lana egiteko, AGINTZEN DUT: 1. artikulua. Deklaratutzat jotzea GERRA EGOERA Nafarroa osoan eta, lehen probidentzia moduan, haren indar guztiak militarizatutzat jotzea, edozein izanik ere orain arte zer AUTORITATEren mende zeuden (...)"

Diario de Navarra, 1936ko uztailaren 19a.

HONAKOA ESKATZEN DA:

1. Testuaren laburpena:..... (3 puntu)
Azaldu, zure hitzekin, testuan beltzez dauden bi esaldiak eta jarraian aipatzen diren bi kontzeptuak: "Mola jeneralaren bandoa" eta "ORDENaren inperioa ezartzea" (2 puntu)
3. Espainiako Gerra Zibilaren hasiera.....(2 puntu)
4. Gerra zibila: parte hartu zuten bandoak.....(3 puntu)



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2021eko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021/05/21

HISTORIA

GAIA: ERREGIMEN ZAHARRAREN KRISIA

TESTUA: OIN BERRIKO DEKRETUAK KATALUNIAN (1716)

"[...] Aurretik heldutasunez deliberatu eta nire konfiantzarik handieneko ministroei kontsulta egin ondoren, **ebatzi dut aipatutako Printzerrian Entzutegi bat eratzea, zeinaren buru izanen baita nire Armen Kapitain Jenerala edo Komandante Jenerala, halako moduan non, ni agintzen hasi ondoren, haren izenean eginen baitira despatxuak [...].**

4. Errege Entzutegian kausak gaztelaniaz bideratuko dira [...].

30. Katalunian korrejidoreak izanen dira, eta hurrengo hiri eta hiribilduetan [12 korrejimenturen izenak zerrendatu dira] [...].

37. Printzerrian lehenago zeuden gainerako ofizioak, aldi baterakoak, betierekoak eta Errege Dekretu honetan adierazi ez diren ofizio komun guztiak, ezabatuta eta iraungita gelditu dira [...].

39. **Sometentetan** eta jende armatuko taldeetan izan diren gorabeherengatik, agintzen dut ez dadila sometent-ik eta bestelako jende armatuko talderik izan. Bestela, talde haietako kide izan edo haietan parte hartzen dutenak sedizioiletzat hartuko dira.

40. Atzeritartasunaren debekuak bertan behera utzi behar dira, nire asmoa baita, errege naizen aldetik, nire erreinuetan duintasunak eta ohoreak nire mendekoei beren merezimenduengatik elkarrekikotasunez ematea eta ez halako edo bestelako probintzietan jaiotzeagatik [...].

42. **Dekretu honen aurreko kapituluetan aurreikusi ez den orotan, agintzen dut lehenago Katalunian zeuden konstituzioak betetzea [...].**

43. Eta, orobat, nire borondatea da esandakoa betearaztea Itsasoaren Kontsulatuari dagokionez, zeinak iraun behar baitu, merkataritza loratu dadin eta herrialdeari onurarik handiena eman diezaion." (

Kataluniako Errege Entzutegiaren ezarpen eta oin berria, 1716ko urtarrilaren 16ko Errege Dekretua

HONAKOA ESKATZEN DA:

- 1- Testuaren laburpena: (3 puntu)
- 2.- Azal ezazu, zure hitzekin, testuan beltzez dauden bi esaldiak eta jarraian aipatzen diren bi kontzeptuak: "Errege Entzutegian kausak gaztelaniaz bideratuko dira" eta "Printzerria".....(2 puntu)
- 3.- Ondorengotza gerra (zergatiak eta ondorioak).....(5 puntu)

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2021eko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021/05/21

HISTORIA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2021eko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021/05/21

HISTORIA